

opusdei.org

Saxum. Mons. Alvaro del Portilloren oroitzapenak

Joan den uztailaren 12an
“Saxum. Mons. Alvaro del
Portilloren oroitzapenak”
dokumentala eman zen lehen
aldiz. Antonio Tormo
kazetariak zuzenduta eta
Alvaro del Portilloren
jaiotzaren mendeurrena dela
eta egindako dokumental
honen estreinaldiak interes
berezia hartzen du orain, joan
den ostiralean Aita Santuak
haren bitartekotzaz egindako

miraria aitortzen duen
dekretua sinatu zuela jakitean.

2013 Uzt 18

Testigantza eta irudi argitaragabeak
erabiliz, 30 minutuko iraupena duen
dokumental honek Eliza Katolikoak
XX mendean izan dituen pertsonaia
gailenetako baten alderdi
nabarmenenak tratatzen ditu.

Jasotako testigantzak “Elizarekiko
zerbitzua”, “Vatikano II.a Kontzilioan
egindako lana” eta berak sustatu
zituen ekimen sozialak
azpimarratzen ditu.

“Zuzenean ezagutu duten ehun
pertsonaia baino gehiagoen
testigantzak jaso ditugu, eta denek
berak zabaltzen zuen bakea
azpimarratu dute. Harrera onekoa
zen bete-betean”, esaten du Tormok.

pdf | document generated
automatically from [https://opusdei.org/
eu-es/article/saxum-mons-alvaro-del-
portillo-oren-oroitzapenak/](https://opusdei.org/eu-es/article/saxum-mons-alvaro-del-portillo-oren-oroitzapenak/) (2026 Mar 25)